

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Ogasunak 2015eko PFEZaren Aitorpenaren simulatzailea aktibatu du

Tresna horri esker, zergadunek zergei buruzko erabakiak urtea amaitu aurretik hartu ahalko dituzte

Lunes, 14 de diciembre de 2015

Nafarroako Zerga Ogasunak 2015eko diru-sarrerei dagokien pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) aitorpenaren [simulatzaile ofiziala](#) aktibatu du jadanik. Tresna horrek 2016ko udaberrian ofizialki aurkeztuko den aitorpenaren emaitzari buruzko informazio ematen du, urtea amaitu baino lehen zergei buruzko erabakiak hartzen errazten, kenkariez baliatzen diren zergadunei bereziki, pentsio edo etxebizitzako planei dagozkienak, esate baterako.

Urtero 30.000 zergadunek baino gehiagok erabiltzen dute zerbitzu hori beren errenta-aitorpena kalkulatzeko eta urtea amaitu aurretik beren ekarpenak egokitzeko.

Simulatzaile horren erabilera anonimoa da eta informazio-maila du soilik. Aplikazio hori eskuratzeko ez da inolako baimenik behar. 2015eko diru-sarrerei dagozkien datuak sartu ondoren, errenta-aitorpenaren emaitza kalkulatu du 2015ean [indarrean izan den araudi](#)ari erreparatuz; beraz, Nafarroako Parlamentua une hauetan izapidetzen ari den zerga-erreformak ez dio eragiten.

Haren emaitza ez da zergadunarekin eta Ogasunarekin loteslea, eta azken horrek gogorarazi du simulatzaileak ez dituela zergadunak sartutako datuak gordetzen; hortaz, haien erabilerak ez du inoiz aitorpen formal bat aurkeztea salbuesten kanpaina 2016ko bigarren hiruhilekoan zabaltzen denean.